



Gobernua gobernatzeko dago eta ez ditu bere funtzioak agente sozialen esku utzi behar. Kontratu indefinituen aurrean kontratu temporalen diskriminazioa ezabatuko duen lan erreforma sakon eta beharrezko baten garaia da, guzti hau bidalitako langileen indemnizazioa egunetan erdiraino jeitxiko litzateke eta aldi berean lan postu gehiago sortuko dituen erregulazio bat lortzeko, flexibilizazio egokitzapen berriak sortuz. Erreforma hau inoren adostasunik gabe egin behar da.

Horrela hitz egiten duena Circulo de Empresarios-a da, aseezin eta explotatzaile diren oligarkiaren ordezkariak, erreformisten eta sindikalismo horiarekin negoziatzeko fasea bukatutzat ematen duena eta komplexurik gabe langileen gaineko kontrol osoa ezarri nahi duena. Gogorak sentituz, beraien sistema nazkagarriak sortutako alde batera utzitakoak eta galtzaileak beraien aurpegi handi, lodi eta harroak begi artean hartzea lortzen ari dira eta agian hautsitako hanka batzuk eta erretako txalet batzuk ez dutela ezer argituko bana pena mereziko lukeela sinisten dute, justizia gabe, impunitatea kasu batzuetan behintzat ezabatuko litzateke.

Borrokalari horietako batzuk aberatsen hiltzaileen zigorra jasotzen ari dira, kasu batzuetan atxilotutako azken anarkista valentziarrak bezala espainiar komisarietako torturen bidez, beste batzuetan Grezian atxilotutako Carlos eta Fernandoren kasuan bezala, G8ko kideen aurrean aurpegia emateagatik bahituak izanda

Beste okasio batzuetan, langileen duintasun sugarrak bengalak botatzen ditu zerura beste langile guztiak errespeturako bide bakarra borroka dela jakinarazteko. Tomareseko udaletxeko garbitzaileek ongi dakite ehun galtze, ehun galtze gutxiago direla garaipenerako bidean, orain dela 115 egun greban daude eta 6 langile gose greban daude Ekainak 23tik.

### Anarkisten aurkako atxiloketa gehiago Valentzian.



Pasa den Uztailak 7, 2 pertsona atxiloketa gertatzen da, Valentziako correoseko bulego batean eztanda egin zuen bomba pakete bat bidaltzea leporatzen zaie. Hurrengo egunean beste 2 pertsona atxilotuak dira, horietako bat ordu batzuk eta gero askatzen dutelarik. Beste hirurei Lege Antiterrorista ezartzen zaie eta Madrilera eramaten

dituzte.

Gertaera hauen aurrean Xaloc-etik hau salatu nahi dugu:

- Lege Antiterroristaren erabilera, errepresio bide guztiz abusiboa delako eta atxilotuen eskubide oinarritzkoenak hausten dituelako eta era berean tortura fisiko eta psikologikoa onartzen duelako.
- Juan Cotino, Gobernuako delegatua, eta Polizia Nazionala atxilotuen izen-abizenak emateagatik, atxilotuen intimitaterako eskubidearen aurka atentatzagatik, erantzule jarri nahi ditugu. Hala nola ustezko errugabetasunaren aurka joatea, epaitu gabe, atxilotuak errudun bezala aurkezteagatik.
- Polizaren erregistro ilegala CNT-k Cabanyaleko auzoan duen Ateneo Libertarioan.
- Mugimendu anarkista, libertario eta okupari Cotino egiten ari zaion kriminalizazioa

### Tomares, 115 egun greban.



Tomareseko (Sevilla) garbiketa langileek 115 egun daramatzate greban, horietako sei Ekainaren 23tik Sevillako La Magdalenaren elizan itxita gose greban. Egoera honen aurrean Ferrovial enpresak, Irakeko bireraikitzeaz arduratutako enpresa batek, 17 langile

kanporatuz erantzun du.

Tomareseko alkatesa "sozialista"ren postura argi eta garbi enpresaren aldekoa izan da; izugarritzko zerbitzu poliziala ezarri du, polizia lokala indartuz, Guardia Zibila eta Polizia Judizialarekin, gose greban jarraitzen dutenei deialdi bat luzatuz, beraien "postura suizida" pentsatu dezaten eta protesta honek ez duela "presionatuko" jakinaraziz.



### Borroka sarean

[www.nodo50.org/resumen](http://www.nodo50.org/resumen)  
[www.mediaberri.org](http://www.mediaberri.org)  
[www.euskalherria.indymedia.org](http://www.euskalherria.indymedia.org)  
[www.stoptortura.org](http://www.stoptortura.org)  
[www.kalegorria.net](http://www.kalegorria.net)

[www.rebeldiaeneh.tk](http://www.rebeldiaeneh.tk)  
[www.nodo50.org/ehk](http://www.nodo50.org/ehk)  
[www.barcelona.indymedia.org](http://www.barcelona.indymedia.org)  
[www.gaztesarea.org](http://www.gaztesarea.org)  
[www.segi-gazte.com](http://www.segi-gazte.com)  
[www.nodo50.org/izca](http://www.nodo50.org/izca)

[www.antorcha.org](http://www.antorcha.org)  
[www.galiza.indymedia.org](http://www.galiza.indymedia.org)  
[www.nodo50.org/rashmadrid](http://www.nodo50.org/rashmadrid)  
[www.boltxe.net](http://www.boltxe.net)  
[www.cnt.es/gipuzkoa/](http://www.cnt.es/gipuzkoa/)  
[www.gara.net](http://www.gara.net)

### Faxismoa orain GARA egunkariaren bila doa.



Frankismoaren erreforma hasi zenetik 3 euskal egunkari itxiak izan dira; "La voz de euskadi", "Egin" eta "Euskaldunon Egunkaria", hala nola "Ardi Beltza" aldizkaria eta "Egin Irratia" irratia gehitu behar zaielarik.

Itxiera hauek, Estatuko kloaketan sorturiko estrategia politikoaren barruan sartu behar dira, Euskal Herriaren garatze askea ekiditeko eta Espainiar kapitalismoaren kontrol ekonomikotik at dauden, eta beraz kontrolaezinak diren elementuak saiesteko.

Badirudi badakitela nundik kosk egin. Seguritate Sozialaren bitartez Espainiako gorenaren maniobra batean, Garzonen teoriak ontzat emanez, GARA (Baigorri)-ko editoreari eta impresio enpresari (KIE), 5,1 milloi euro ordainaraztea eskatzen diete. Garari ezin egotzi zaion Eginen ustezko zor batzuk. Egoera honek, Gara egunkariari embargua ekar liezaioke eta beraz ekonomikoki itota, proiektu informatiko hau amaitarazi.

GARA eta adierazpen askatasunaren aldeko giza kate batek Donostia zeharkatuko du hilak 19.

### Tsalonikan (Grezia) G8aren aurkako protestetan atxilotutako Carlosen eskutitza espexetetik:

Zuen borondate eta ahaleginari esker, gre kartzelaratzeko gogortasun eta duintasunez jarraitzeko esperantza ematen diguzue. Agur bero bat guztioi, kamaradak, eta batez ere Celina, Antonia, Haris gure abokatuari, Juan Carlos nire aitari, Iñaki anaiaari eta Nerea neskalagunari, seguraski egun hauetan zuekin egongo direnei. Manifestaldietan irakurri nahi izan ezker beste eskutitz bat bidaliko dizuet. Ez da garrantzitsua, baina zerbait kanpora atera ezean eztanda egingo dut. Badakigu zuen interesa gudan eta kooperazio internazionalaren laguntza. Horregatik eta gehiagotatik eskerrak ematen dizkizuet.

Hemen, espexean, edo hobeki esanda solairu hontan, ezin bait ezer gehiago ikusi, denbora oso motel pasatzen da eta teilatu eta paretren kolorea grisa da, leku guztietan bezala.

Jendez beteta dagoen eta eguzkiak egun osoan zehar jotzen duen patioan Fernandorekin komunikatzen nahiz noizbehinka.

Besteetaz ez dakit ezer, alden du eta dispersatu egiten gaituzte. Guretzat oso ona izango litzateke, zulo hontatik ateratzeaz gain, batera mantentzeko borrokatuko bazenuete.

